

## GORBEIALDEKO KUADRILLA

Gorbeialdeko Kuadrillako Udaltaldean, Aramaioko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako Udalek osatutakoan, ingurumen gaietarako aholkularitza teknikoaren zerbitzua kontratatzeko lizitazioa

Lehendakaritzaren 2017ko irailaren 1eko ebazpen bidez, kontratazio espediente hau onartu zen:

1. Erakunde esleitzaila: Gorbeialdeko Kuadrilla.
2. Kontratuaren xedea:
  - a) Xedearen deskribapena: Gorbeialdeko Kuadrillako Udaltaldean, Aramaioko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako Udalek osatutakoan, ingurumen gaietarako aholkularitza teknikoaren zerbitzua.
  - b) Kontratu mota: zerbitzuak.
  - c) Aldaerak: ez dira onartzen.
3. Izapidetzea eta esleipen prozedura:
  - a) Izapidetzea: Arrunta.
  - b) Prozedura: Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua.
  - c) Erregulazio harmonizatua: Ez.
4. Kontratuaren iraupena eta lizitazio oinarria:
  - a) Kontratuaren iraupena: 12 hilabete.
  - b) Luzapena: Ez.
  - c) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gutxiago eskainiz hobetu daite: 31.250 euro, BEZa aparte.
  - d) Kontratuaren gutxi gorabeherako zenbatekoa: 31.250 euro, BEZa aparte.
5. Lege, ekonomia, eta finantza informazioa eta informazio teknikoa:
  - a) Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.
  - b) Behin betiko bermea: Kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte).
  - c) Berme osagarria: Ez da eskatzen.
  - d) Ordaintzeko era: administrazio klausulen agiria.
  - e) Esleipen irizpideak: administrazio klausulen agirian adierazitakoak.
  - f) Sailkapena: Ez da eskatzen.
  - g) Kaudimen tekniko edo profesionala: ikus administrazio klausulen agiria.
  - h) Ekonomia eta finantza kaudimena: ikus administrazio klausulen agiria.
6. Dokumentazioa eskuratzea:
  - a) Lekua: Gorbeialdeko Kuadrillaren egoitza, Udaletxearen Plazan, 1,2. ezkerra; posta kodea: 01130, Murgia; telefonoa: 945-430167; faxa: 945-462608, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era, edo Gorbeialdeko Kuadrillaren profilean (sarbidea: [www.gorbeialdekokuadrilla.eus](http://www.gorbeialdekokuadrilla.eus) webgunean)
  - b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko epea: eskaintzak aurkezteko azken egunera arte, jendearen arretarako ordutegian, 08:30etik 14:30era.
7. Eskaintzak aurkeztea:
  - a) Eskaintzak aurkezteko epea: irailaren 14ko 14:30ak.

- b) Eskaintzak aurkezteko lekua: Gorbeialdeko Kuadrillaren erregistro nagusia, Udaletxe plaza, 1,2. ezkerre. Murgia (Araba).
  - c) Ordutegia: 08:30etik 14:30era, asteleheneretik ostiralera.
  - d) Postaz bidaltzea: Ez.
  - e) Aurkeztu beharrezko agiriak: Administrazio klausulen agirian adierazitakoak.
8. Eskaintzak irekitzea: ikusi administrazio klausulen agiria.
9. Kontratatzailearen profila: [www.gorbeialdekokuadrilla.eus](http://www.gorbeialdekokuadrilla.eus)

Murgia, 2017ko irailaren 4an.– Kuadrillako Lehendakaria, Ekaitz Díaz de Garayo Sáez de Cerain.



The image shows a handwritten signature in blue ink over a circular official stamp. The stamp contains the text "GORBEIALDEKO KUADRILLA" at the top and "KUADRILLA DE GORBEIALDEA" at the bottom, with a central emblem. The signature is a stylized, cursive script.